e) No podrán efectuarse segregaciones de fincas que impliquen la reducción de su superficie por debajo de los límites de superficie de parcela aportada exigidos en el presente Plan a los efectos de la implantación de usos y construcciones autorizadas, salvo que las porciones segregadas en esas condiciones se agrupen de forma simultánea con otras fincas, cumplimentando las nuevas fincas resultantes dichos límites.

f) Las fincas adscritas a edificaciones construidas con anterioridad a la aprobación de este Plan General, que incumplan las condiciones de parcela aportada mínima aplicables en cada caso, o la de la parcela aportada necesaria en relación al aprovechamiento edificatorio construido, se consolidan en su estado actual.

En esas edificaciones podrán implantarse los usos autorizados en este proyecto. Ahora bien, dichas parcelas no podrán ser objeto de segregaciones.

g) Las segregaciones que se realicen en Suelo No Urbanizable con posterioridad a la aprobación del presente proyecto, en contra de lo dispuesto en este se tendrán por no realizadas a efectos de la implantación de edificaciones y usos autorizados, por lo que el peticionario deberá aportar como única la finca matriz originaria, o en el caso de que la misma sea autorizada, solicitar previamente licencia de parcelación de acuerdo con lo establecido en el presente Plan General.

3.4. URBANIZAZIOA GAUZATZEA

23. *Artikulua. Urbanizazio obrak gauzatzeko proiektu modalitateak.*

1. Urbanizazio obrak ondoko proiektuen bidez definituko eta gauzatzeko dira:

— Lurzoruaren legeko 15. artikuluan eta hirigintza plangintzaren erregelamenduko 67. artikuluan araututako «Urbanizazio proiektuak».

— Plangintza erregelamenduko 67.3. artikuluan araututako «Urbanizazio obra arruntzen proiektuak».

— «Eraikuntza proiektuen osagarriak diren urbanizazio proiektuak», partzela jakin bat orubetzat jotzeko beharrezko zerbitzuez hornitzeko edo aurretik zegoen urbanizazioa berrezartzeko eta hobetzeko xedearekin formulatutakoak, bai plangintzan baita dagokion lizentzian ezarritakoaren arabera.

2. Horri dagokionez, Plan Orokor honetan mugatzen den hiri area bakoitzari dagozkion irizpide eta zehaztapenak dagozkion Hirigintza Fitxetan edo beren garapenean formulatuko den plangintza xehatua zehaztutakoak izango dira.

24. *Artikulua. Dokumentazio eta eduki arauak urbanizazio obraren proiektuetarako.*

Formulatzen den proiektu modalitatea edo mota edozein delarik ere, indarrean dagoen hirigintza legediak eskatutako dokumentu eta zehaztapenez gain, ondokoak jasoko ditu:

— Plan honetan eskatutakoak, urbanizazioaren eraikuntza kalitateari eta zerbitzu mailari dagokienez, baita dagokion sektore mailako araudiak ezarritakoak ere.

— Dokumentu honen edo garatzen duen plangintzaren antolamenduaren, bide sareen eta zerbitzuen eskemen planoen kopia, proiektuak gauzatzeko dituenak.

— Era argi eta xehatua hirigintza oztupoak kentzeari dagokionez indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzatzaile eta eskakizunak betetzen direla adierazten duen eranskina, horri buruz hartutako neurriak deskribatuz.

— Antolamenduaren memorian (DOC 1) deskribatutako iraukortasun irizpideen aplikazioa. Horien artean, ondokoak nabarmendu behar dira:

* Ahalegindu behar da zolatu daitezkeen gune iragazgaitzak mugatzen, lursailaren iragazpen naturalaren gaitasuna mantentzen saiatuz. Oinezkoentzako guneetan eta ibilgailuak sar daitezkeenetan euria iragazten uzten duten materialak erabiltzea planteatuko da.

* Zarata maila handiak bada, urbanizatzerakoan kontuan hartu behar da aurreikusitako eraikin ezberdinak, hauek izan behar dituzten erabilpenen arabera antolatzeak aukera. Horrela, gutxienez erabiltzen direnak (industria eta zerbitzu eraikinak) pantaila akustiko gisa jardungo dute zaratari dagokionez sentikorrenak diren eraikinekiko (etxebizitzak, eskola ekipamenduak, osasun ekipamenduak).

* Eremu ezberdinetako espazio publikoetan eta eraikin berrien espazio komunean kontsumo txikiko eta era berean, argi kutsadura saihesten duten argi sistemak erabiliko dira.

* Zaborrak gaika jasotzeko gune egokiak aurreikusiko dira.

3.4. EJECUCIÓN DE LA URBANIZACIÓN

Artículo 23. *Modalidades de proyectos para la ejecución de obras de urbanización.*

1. La definición y ejecución de las obras de urbanización podrá efectuarse mediante:

— «Proyectos de Urbanización» regulados en los Artículos 15 de la Ley del Suelo y 67 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

— «Proyectos de obras ordinarias de urbanización» regulados en el 67.3 del Reglamento de Planeamiento.

— «Proyectos de urbanización complementaria a los de edificación», formulados con el objeto de dotar a una determinada parcela de los servicios necesarios para su consideración como solar, o para proceder a la reposición y mejora de la urbanización existente, en los términos establecidos tanto en el planeamiento como en la licencia correspondiente.

2. A este respecto, los criterios y determinaciones correspondientes a cada una de las Áreas Urbanas que se delimitan en el presente Plan General, serán los definidos en cada caso en Fichas Urbanísticas correspondientes, o en el planeamiento pormenorizado que se formule en su desarrollo.

Artículo 24. *Normas de documentación y contenido para los proyectos de obras de urbanización.*

Cualquiera que sea la modalidad o tipo de Proyecto que se formule, además de los documentos y determinaciones exigidos por la vigente legislación urbanística, contendrá los siguientes:

— Los exigidos en el presente Plan, tanto en lo referente a la calidad constructiva y nivel de servicio de la Urbanización, así como los establecidos por la Normativa sectorial correspondiente.

— Reproducción de los planos de ordenación, red viaria y esquemas de servicios del presente documento o del planeamiento que lo desarrolle, y que el proyecto tienda a ejecutar.

— Anexo en el que se indique de forma clara y pormenorizada el cumplimiento de los condicionantes y exigencias establecidos en la normativa vigente en materia de supresión de barreras urbanísticas, con una descripción de las medidas adoptadas al respecto.

— Aplicación de criterios de sostenibilidad descritos en la Memoria de Ordenación (DOC 1). Entre los mismos, caben destacar los siguientes:

* Se procurarán limitar las áreas pavimentables no permeables de forma que se tienda a mantener la capacidad de filtrado natural del terreno. En los espacios peatonales y de accesos rodados se planteará la utilización de materiales permeables a la lluvia.

* En caso de que existan niveles altos de ruido, las urbanizaciones tendrán en cuenta la posibilidad de ordenar los distintos edificios previstos en función de los usos que van a tener dichos edificios, de forma que aquellos menos utilizados (industrial, servicios) puedan servir de pantallas acústicas respecto de aquellos edificios más sensibles al ruido (viviendas, equipamiento escolar, equipamiento sanitario).

* En los espacios públicos de los diferentes ámbitos y en los espacios comunes de las nuevas edificaciones se utilizarán sistemas de iluminación de bajo consumo y que, asimismo, eviten la contaminación lumínica.

* Se preverán espacios adecuados para la recogida de basura selectiva.

— Lurzoru urbanizagarrien garapenari buruzko Plan Partzialak gauzatzeko beharrezkoak diren urbanizazio proiektuek ingurumen eta paisaia zaharbertitzeko proiektu bat edukitzeko beharra zehaztuko da, besteak beste, ondoko alderdiak jasoko dituen:

* Obrak egiterakoan eta jarduketa osagarriak gauzatzekoan ukituko diren eremuen azterlana, esate baterako: Instalazio lagungarriak, zabortegei eta isurtegei berriak, obretan erabili beharreko materialen erauzketa guneak, lur gaineko ura drainatzeko sarea, obrarako sarbideak eta obretarako eraikitako bideak, eta abar.

* Eragindako arean egitekoak diren jarduerak jarduera paisaia integratzea lortzeko, bereziki kontuan hartuz: Azaleko isurketa uren drainatze sare berria, sektorea gune orografari eta ibaien ertzei dagokienez integratzeko teknikak (ezponda etzanak, ezpondak egonkortzeko teknika «biziak»), gune zola-garriak mugatzea, interes naturalistikoko zuhaitzietan eragina murriztea, zaharbertitzean erabiliko diren landare espezieak eta horiek ezartzeko eta mantentzeko metodoak deskribatzea; azken hauek ezaugarri bioklimatikoetara eta lursailaren ezaugarrietara egokitu behar dira eta paisaia pantailatze eginkizun batekin eta antzekoekin kokatu ahal izango dira.

Era berean, behar bezala justifikatuko dira ondokoak:

— Plan Partzialerako beharrezko ur hornidura dagoela, baita guneko baliabide hidrikoetan eragin kuantitatiborik ez dagoela ere.

— Urbanizazio eremu bakoitzaren saneamendu eta hornidura sareen egokitzapena. Hustu beharreko emariak pila daitezkeela kontuan izanik, eta hornidura nahiz estolda sareen presioa eta emariak aurreikusiz, gainerako lurzoru hiritarrek edo hiritargarriek izan dezaketen eragina ere aintzat hartuko da, sareek gainezka egiteko arriskurik izan ez dezaten. Saneamendu sarea eta euri uren sarea berezita daudela. Eremu urbanizagarri berrietan sortutako hondakin urak saneamendu sare orokorrera bideratuko dira.

— Eremu urbanizagarri berrietara iristeko beharrezkoak diren sarbideen gaitasuna, zenbaterainoko erabilera izango duen kontuan izanik, eremu horien eta udalerraren gainerako lekuen arteko irisgarritasun eta mugikortasun arazoak era egokian konpontzeko helburuarekin.

— Udalerritik eremu berri horietarako garraio publikoaren lineak sustatzea eta diseinatzea, eta oinezkoentzako eta txirindularientzako sarbide egokiak sortzea.

25. Artikulua. Urbanizazio proiektuek antolamendua egokitzeko aukeraren mugak.

Urbanizazio proiektuek Espazio Libreen eta Komunikazioen Tokiko Sistemaren Elementuen antolamenduari errokatzea eta sestrak egokitu ahal izango dituzte, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen arabera.

26. Artikulua. Partikularrek urbanizazio proiektuak gauzatea.

1. Behin betiko onartutako «urbanizazio proiektu» batean aurreikusitako obrak gauzatzeko ez da beharrezkoa izango aurretik udal lizentzia eskatzea eta lortzea.

2. Obrak hasiko direla ezagutarazteko jakinarazpenak, alkatetzari zuzendu behar zaiona eta obraren titularrak edo berau ordezkatzeko duen pertsonak sinatu behar duena, bien datuak, burutu beharreko obraren zatiaren identifikazio grafikoa, obra unitateen eta obraren neurketen zerrenda, onartutako proiektuaren sistematika eta definizioei buruzkoa, gauzatzeko arduratuko den enpresa eraikitzailearen eta obraren teknikari edo teknikari zuzendarien nortasuna eta zuzendaketa eskaera jaso beharko ditu.

— Los proyectos de urbanización necesarios para ejecutar los planes parciales referentes al desarrollo de los suelos urbanizables incluirán, además, un proyecto de restauración ambiental y paisajística que recoja, entre otros, los siguientes aspectos:

* Análisis de las áreas afectadas por la ejecución de las obras y actuaciones complementarias, tales como: Instalaciones auxiliares, vertederos o escombreras de nueva creación, zonas de extracción de materiales a utilizar en las obras, red de drenaje de las aguas de escorrentía superficiales, accesos y vías abiertas para la obra, etc.

* Actuaciones a realizar en el área afectada para conseguir la integración paisajística de la actuación, con especial atención a: Nueva red de drenaje de las aguas de escorrentía, integración del sector en relación con la orografía de la zona (taludes tendidos, técnicas «vivas» de estabilización de taludes) y los bordes de los cauces, limitación de las áreas pavimentables, minimización de la afección a las masas arboladas de interés naturalístico, descripción de las especies vegetales que se van a utilizar en la restauración y de los métodos de implantación y mantenimiento de las mismas, que tendrán que adecuarse a las características bioclimáticas y del terreno y podrán ubicarse con una función de apantallamiento paisajístico, etc.

Asimismo, justificarán debidamente:

— La existencia de dotación de agua necesaria para los planes parciales, así como la ausencia de impacto cuantitativo sobre los recursos hídricos de la zona.

— La adecuación de las redes de saneamiento y abastecimiento de cada ámbito de urbanización. Dada la posible acumulación de caudales a evacuar así como la presión y caudales de la red de abastecimiento y saneamiento, se tendrá en cuenta la posible influencia de las restantes áreas aptas para urbanizar o urbanas, de manera que se evite una sobresaturación de las redes. La red de saneamiento y de aguas pluviales será de tipo separativo. Las aguas residuales generadas en los nuevos ámbitos urbanizables serán conducidas a la red general de saneamiento.

— La capacidad viaria de los accesos necesarios para acceder a los nuevos ámbitos urbanizables en función de la frecuentación que van a soportar, de forma que se resuelvan adecuadamente los problemas de accesibilidad y movilidad entre dichos ámbitos y el resto del municipio.

— La potenciación y diseño de líneas de transporte público del municipio hasta esos nuevos ámbitos y la existencia de buena accesibilidad peatonal y ciclista a los mismos.

Artículo 25. Límites de la posibilidad de efectuar adaptaciones de la ordenación por los proyectos de urbanización.

Los proyectos de Urbanización podrán adaptar las alineaciones y rasantes de ordenación de los Elementos del Sistema Local de Espacios Libres y Comunicaciones, según la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

Artículo 26. Ejecución de proyectos de urbanización por los particulares.

1. La ejecución de las obras previstas en un «proyecto de urbanización» definitivamente aprobado no exigirá la previa solicitud y obtención de licencia municipal.

2. La notificación del comienzo de las obras, dirigida a la Alcaldía y suscrita por el titular de las obras o personas que lo represente, deberá contener los datos de ambos, identificación gráfica de la parte de obra a realizar, relación de unidades de obra y mediciones de la misma referida a la sistemática y definiciones del presupuesto del proyecto aprobado, identidad de la empresa constructora encargada de la ejecución y del Técnico o Técnicos Directores de obra y solicitud de replanteo.

3. Zehazki, udalak obrak gauzaten diren bitartean egiten duen kontrol prozesuan dokumentu honen 031. artikulua aplikatuko da. Aplikazio hori indarrean dagoen antolamendu juridikoak ezartzen duen edozein mekanismoren bitartez burutuko diren udal kontrolaren ahalmenak kaltetu gabe burutuko da.

4. Obra arrunten proiektuek eta eraikuntzaren proiektu osagarriek dagokion udal lizentzia lortu beharko dute, Plan honen 031. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.5. ERAIKITZEKO AHALMENA ERABILITZEA

27. Artikulua. Hiri lurzoruan eraikitzeke ahalmena erabiltzea.

1. Hiri lurzoru gisa sailkatutako hiri areetan sartutako partzelak direnez, non beren formulazioaren baldintza ezartzen den, ezingo dira eraikitzeke lizentziak eman dagokion Plan Berezia edo Xehetasun Azterlana behin betiko formulatzen eta onartzen den arte.

Partzela horietan, aipatu baldintzak betetzen ez diren bitartean, orubetzat jo ahal izateko indarrean dagoen hirigintza legegian ezarritako baldintzatzaileak ez direla bete ulertuko da.

2. Aurreko atalean deskribatutako egoeran ez dauden partzelek, orubetzat jo ahal izateko, fatxada guztietako lerrokadurak, sestrak, altuerak, profila eta eraikinaren sakonera definituta eduki beharko dituzte.

Zehaztapen horiek oso-osorik definituta ez badaude, Udalak dagokion lizentzia ukatu beharko du eta Xehetasun Azterlan bat formulatzeko eskatu.

3. Ezingo da inola ere exekuzio unitateen barruan dauden partzeletan eraikitzeke lizentzia eskatu edo luzatu «etekin eta kargen hainbanaketa» eta «urbanizazioari» buruzko proiektuei, unitateen eta hauen titularren urbanizazioari eta lagapenari lotutako betebeharrak definituko dituztenei (Plan Orokor honen 031. artikulua), behin betiko onarpena eman ez bazaie.

Dokumentu honetan adierazitako urbanizazioa gauzatzeko epeak, aldi berean, lagapen eta hainbanaketaren legezko betebeharrak burutzeko epeak dira.

4. Orube gisa jotzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzten partzelen kasuan, dagokion eraikitzeke lizentzia emateko baldintza bat egon daiteke, aldi beren beharrezkotzat jotzen diren urbanizazio obra osagarriak gauzatea edo dagoen urbanizazioa berregokitu eta hobetzea, ondorio horietarako, plangintzan ezarritakoa betez.

5. Eraikitzeke lizentzia eskatzeko eta obrak hasteko eta amaitzeko epeak Hirigintza Fitxetan xedatutakoaren arabera definituko dira.

Epe horiek, halaber, hala dagokionean, eraikuntzaren aurretik edo aldi berean eta horren osagarri gisa, gauzatu behar diren urbanizazio obrei dagokienez ezarriko dira.

28. Artikulua. Antolaketaz kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak.

1. Ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Legeko 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, bereizketa bat egiten da antolamendu berriarekin erabat bateraezinak diren instalazio, eraikuntza, eraikin eta erabileren eta soilik hein batean bateraezinak dire-

3. En concreto, en el proceso de control municipal de la ejecución de las obras, serán de aplicación el 031 del presente documento. Ello, sin perjuicio de las facultades de control municipal que se ejercerán a través de cualquiera de los mecanismos que establece el ordenamiento jurídico vigente.

4. Los Proyectos de obras ordinarias y los Proyectos complementarios a la edificación estarán sujetos a la obtención de la correspondiente licencia municipal, de conformidad con lo dispuesto en el 031 de este Plan.

3.5. EJERCICIO DE LA CAPACIDAD DE EDIFICAR

Artículo 27. Ejercicio de la facultad de edificar en suelo urbano.

1. Tratándose de parcelas incluidas en Áreas Urbanas clasificadas como Suelo Urbano en las que se establece la condición de su formulación no podrán otorgarse licencias de edificación en tanto sea formulado y aprobado definitivamente el correspondiente Plan Especial o Estudio de Detalle.

En dichas parcelas, en tanto no se cumplimenten los requisitos mencionados, se considerarán incumplidos los condicionantes establecidos en la legislación urbanística vigente para su consideración como solares.

2. En el supuesto de parcelas que no se encuentren en la situación descrita en el apartado anterior, deberán tener definidas las alineaciones de todas sus fachadas, las rasantes, las alturas, el perfil y el fondo de edificación, para que puedan ser consideradas como solares.

En el caso de que dichas determinaciones no estén definidas en su integridad, el Ayuntamiento deberá denegar la licencia correspondiente, y exigir la formulación de un Estudio de Detalle.

3. En ningún caso podrá solicitarse ni concederse licencia de edificación en las parcelas incluidas en Unidades de Ejecución en tanto no se hayan aprobado definitivamente los correspondientes Proyectos de «equidistribución de beneficios y cargas» y de «urbanización», que definen las obligaciones de urbanización y cesión asignadas a las mismas y a sus titulares (031 del presente Plan General).

Los plazos para la ejecución de la urbanización señalados en este documento constituyen igualmente plazos para el cumplimiento de los deberes legales de cesión y equidistribución.

4. En el supuesto de parcelas que reúnan los requisitos necesarios para su consideración como solar, la concesión de la correspondiente licencia de edificación podrá condicionarse a la ejecución simultánea de las obras de urbanización complementarias que resulten necesarias o a la reposición y mejora de la urbanización existente, de conformidad, a esos efectos, con lo establecido en el planeamiento.

5. Los plazos para la solicitud de licencia de edificación, e inicio y finalización de las obras se definirán según lo dispuesto en las fichas urbanísticas.

Dichos plazos también serán establecidos en relación con las obras de urbanización que, en su caso, deban ejecutarse previa o simultáneamente a la edificación, y complementariamente a la misma.

Artículo 28. Edificios, instalaciones y usos fuera de ordenación.

1. De conformidad con lo dispuesto en el art. 101 de la Ley Vasca 2/2.006, de 30 de junio, se distinguen entre las instalaciones, construcciones, edificaciones y usos totalmente incompatibles con la nueva ordenación y las que sean sólo par-

nen artean. Edozein kasutan, antolamendu berriarekin erabat bateraezinak direla ulertu da herri zuzkidurako lurzorua okupatzen duten eta bere xedearen eraginkortasuna eragozten duten instalazio, eraikuntza, eraikin eta erabilerak.

2. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, 1. atalean aipatzen diren eraikin, eraikuntza eta erabilerak ondoko mailetak bati lotuko zaizkio:

a) Antolamendutik kanpo daudenak: Indarrean dagoen hirigintza plangintzaren aurretik zeuden eraikin, eraikuntza, instalazio eta erabilerak eta plangintza horretan epe jakin batean desagertuko direla aurreikusten direnak, lege honetan aurreikusitako sistema orokor eta lokalak jarduera isolatu, integratu edo gauzatzeko jardueretako batean sartuta daudelako.

b) Hirigintza plangintzarekin bat ez datozenak: Indarrean dagoen hirigintza plangintzarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza, instalazio eta erabilerak; plangintza horrek, baina, ez du aurreikusten desagertuko direnik eta ez du horretarako eperik ezartzen.

c) Antolamendu xehatua ez duten area edo sektoreetan aurrez daudenak.

3. Araudi Partikularrak (Hirigintza Fitxek) bere zehaztapenetan eraikin eta eraikuntza horiei buruz baimendutako eta debekatutako egintza eta erabilerak jasoko ditu, bereziki, birgaitzeari dagokionez, hirigintza antolamenduarekiko bateragarritasuna eta horietan egingo diren jarduera aurreikuspenak kontuan hartuz.

4. Ezingo dira baimendu antolamendutik kanpo utzitako eraikuntza eta eraikinak modernizatzeko, finkatzeko, beren bolumena handitzeko edo hobetzeko obrak, ezta antolamendu xehatua egiteke duten area edo sektoreetan aurretik existitzen direnak ere. Hala ere, ez dira hor sartuko eraikina gutxieneko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzetan mantentzeko bideratzen diren eta beharrezkotzat jotzen diren obrak, baita beste batzuei kalteak ez eragitera bideratutakoak ere, hori guztia lege honetan definitutako aurri buruzko lege araubidearen kalterako izan gabe.

5. Hala ere, aparteko kasuetan finkatzeko obra partzial eta unean unekoak baimendu ahal izango dira; obrek ezingo dute higiezinaren errebalorizaziorik ekarri.

29. Artikulua. Lurzoru urbanizaezinean eraikitze ahalmena erabiltzea.

Lurzoru urbanizaezinean eraiki eta jarduerak ezartzeko ahalmena erabili ahal izateko, Plan honetan eta, hauek garatuz bere kasuan formula litezkeen Plan Berezetan xedatutakoa bete beharko da.

30. Artikulua. Lurzoru urbanizaezinean eraikinak, instalazioak eta antolamendutik kanpoko erabilerak.

1. Antolamendutik kanpokotzat jotzen dira Plan honetan edo, bere kasuan, formulatzen diren Plan Berezetan xedatutakoaren arabera, legeztagarriak ez diren existitzen diren eraikin, instalazio eta erabilerak.

2. Horretarako, ulertuko da «legeztazainak» direla ondoko eraikin eta instalazioak:

a) «Babes Bereziko» guneean eta sistema orokorretan, horietako bakoitzerako ezarritako eraikuntza araubidearen arabera ez diren guztiak.

b) Gainerako guneean, beren ezaugarriengatik soil-soilik espreski debekatutako erabilerak ezartzera bidera daitezkeen guztiak; horien artean, eraikin bakoitzeko bi (2) etxebizitza unitatek gorako etxebizitza erabileretara bideratutakoak.

cialmente incompatibles. En todo caso, se calificarán como totalmente incompatibles con la nueva ordenación las instalaciones, construcciones, edificaciones y usos que ocupen suelo dotacional público e impidan la efectividad de su destino.

2. A los efectos de lo dispuesto en este artículo, se señalan la sujeción de los edificios, construcciones y usos a que se refiere el apartado 1 a alguna de las siguientes categorías:

a) Fuera de ordenación: Los edificios, construcciones, instalaciones y usos existentes con anterioridad al planeamiento urbanístico en vigor y para los que éste prevea su desaparición en un plazo determinado, por quedar incluidos en alguna de las actuaciones aisladas, integradas o de ejecución de sistemas generales y locales previstas en esta ley.

b) Disconformes con el planeamiento urbanístico: Los edificios, construcciones, instalaciones y usos disconformes con el planeamiento urbanístico en vigor y para los que éste no prevea su desaparición o no fije un plazo para la misma.

c) Preexistentes en áreas o sectores pendientes de ordenación pormenorizada.

3. La Normativa Particular (Fichas Urbanísticas) incluirá dentro de sus determinaciones los actos y usos autorizables y prohibidos respecto a estas edificaciones y construcciones, especialmente en materia de rehabilitación, en atención a su compatibilidad con la ordenación urbanística y a las previsiones de actuación sobre los mismos.

4. No serán autorizables las obras de modernización, consolidación, aumento de volumen o mejora en construcciones y edificios declarados fuera de ordenación, ni en los preexistentes en áreas o sectores pendientes de ordenación pormenorizada. No obstante, no tendrán esta consideración las obras que estén destinadas y se consideren necesarias para el mantenimiento del edificio en las mínimas condiciones de habitabilidad y salubridad y las dirigidas a evitar daños a terceros, todo ello sin perjuicio del régimen legal de la ruina definido en esta ley.

5. Sin embargo, en casos excepcionales podrán autorizarse obras parciales y circunstanciales de consolidación, sin que dichas obras puedan suponer revalorización del inmueble.

Artículo 29. Ejercicio de la facultad de edificar en el suelo no urbanizable.

El ejercicio de la facultad de edificación e implantación de actividades en el Suelo No Urbanizable se acomodará a lo dispuesto en el presente Plan y, en su caso, en los Planes Especiales que se formulen en su desarrollo.

Artículo 30. Edificios, instalaciones y usos fuera de ordenación en el suelo no urbanizable.

1. Se declaran fuera de ordenación los edificios, instalaciones y usos existentes que no resulten legalizables, de conformidad con lo dispuesto en el presente Plan, o, en su caso, por los Planes Especiales que se formulen.

2. A tal efecto, se considerarán como «no legalizables» los edificios e instalaciones siguientes:

a) En las Zonas objeto de «Protección Especial» y en los Sistemas Generales, todos los que no se ajusten al régimen de edificación establecido para cada una de ellas.

b) En el resto de las zonas, todos los que por sus características puedan destinarse exclusivamente a la implantación de usos prohibidos de manera expresa, y, entre ellos los destinados a Usos de Vivienda con más de dos (2) unidades de vivienda por edificio.

Dagokion udal lizentziarik ez badute eta indarrean dagoen Plan Orokorra onartu ondoren eraikitakoak badira, muga hori ere bi (2) etxebizitza unitatekoa izango da.

3. Aurreko epigrafeko a) eta b) ataletan definitutako kasuetan jasotzen diren eraikin eta instalazioak, espediente administratiboren baten horiek eraisteko epe irmoak ezartzen ez dituen bitartean, «plangintzarekin bat ez datorren» araubidearen barruan daudela ulertuko da.

4. Plan honetako zehaztapenen bat betetzen ez duten antolamendutik kanpokotzat jo ez diren eraikin eta instalazioetan, Udalak horiek erabat edo hein batean zehaztaper horietara egokitzeko eskatu ahalko du, eraikin edo instalazio horiek kokatzen diren finkari eragiten dion edozein hirigintza lizentzia eman aurretik edo ematerakoan bete beharreko baldintza gisa.

4. LAUGARREN TITULUA

4.1. LIZENTZIAK (OBRAK ETA INSTALAZIOAK BURUTZEKO ETA JARDUERAK EZARTZEKO LIZENTZIEN ESKAERA, IZAPIDETZA ETA GAUZATZEAREN KONTROLARI ARAUTZEN DUTEN ORDENANTZAK)

31. Artikulua. Lizentziapeko egintzak.

1. Indarrean dagoen hirigintza legedian – Hirigintza diziplinaren erregelamenduko 1. artikulua eta horrekin bat datozenak- zerrendatutako egintzez gain eta edozein delarik ere sustaizalea, lizentzia eduki beharko dute ondokoek:

a) Obra osagarriak, esaterako, finkak, orubeak eta lurak ixtea; babes hesiak, aldamiok, eskoramenduak eta obren eraikuntzarako beste elementu osagarriak ezartzea; estalkiak, ganbarak, fatxaden akaberak edo urbanizazio elementu puntualak –zerbitzuen hartuneak, zoladurak birjartzea, etab. konponetzea eta errotilu, olan eta markesinak jartzea.

b) Industria edo hirugarren sektoreko erabilerak ezartzea eta erabilera edo jarduera aldaketaren bat dakarren edozein jokoera.

c) Erauzketa erabilerak ezartzea, esaterako, idorren erauzketa eta harrobien ustiapena.

d) Mota guztietako nekazaritza ustiapenentara zuzendutako eraikuntzak eta instalazioak ezartzea.

e) Lurzoru urbanizaezinean lurraldearen ustiapenarekin lotuta ez dauden bizitoki erabilerak eta baimendu daitezkeen bestelako erabilera ez landatarrak ezartzea.

f) Lurzoru urbanizaezinean kokatzen den finka bat banatzea, indarrean dagoen plangintzak erabilera edota eraikuntza ezberdinei dagokienez, partzelazio edo eraginerako gutxieneko azalera zehazten dituen.

g) Lurzoru urbanizaezinean bideak eta pistak egin edo aldatzea.

h) Suebakiak irekitzea.

i) Putzuak eta zangak eraikitzea.

j) Kanpin eta akanpalekuak instalatzea.

k) Aurrez fabrikatutako eraikuntzak, karabanak edo gela, ostatu edo aisialdirako leku gisa erabil daitezkeen beste edozein elementu instalatzea, inolako zimendurik gabe bada ere, izaera finkoan edo aldizka –asteburuetan, urteko sasoi jakin batzuetan edo beste garai batzuetan–.

Si carecieran de la preceptiva licencia municipal y hubiesen sido construidos con posterioridad a la aprobación del vigente Plan General, este límite será también dos (2) unidades de vivienda.

3. Los edificios e instalaciones comprendidos en los casos definidos en los apartados a) y b) del epígrafe anterior, en tanto no se fijen por algún expediente administrativo plazos firmes para su demolición, se considerarán adscritos al régimen de «disconforme con el planeamiento».

4. En los edificios e instalaciones no declarados fuera de ordenación que incumplan alguna de las determinaciones del presente Plan, el Ayuntamiento podrá exigir su adecuación total o parcial a dichas determinaciones como condición previa o simultánea a la concesión de cualquier licencia urbanística que afecte a la finca sobre la que dichos edificios o instalaciones se sitúan.

4. TITULO CUARTO

4.1. LICENCIAS (ORDENANZAS REGULADORAS DE LA SOLICITUD, TRAMITACIÓN Y CONTROL DE LA EJECUCIÓN DE LICENCIAS PARA LA REALIZACIÓN DE OBRAS E INSTALACIONES, Y LA IMPLANTACIÓN DE ACTIVIDADES)

Artículo 31. Actos sujetos a licencia.

1. Además de los actos enumerados en la vigente legislación urbanística 1 del Reglamento de Disciplina Urbanística y concordantes-, y cualquiera que sea su promotor, estarán sujetos a licencia los siguientes:

a) Las obras auxiliares como el cerramiento de fincas, solares y terrenos; la colocación de cercas o vallas de protección, andamios, apuntalamientos, y demás elementos auxiliares de construcción de las obras, la reparación de cubiertas, azoteas, terminaciones de fachada o elementos puntuales de urbanización –acometidas de servicios, reposiciones de pavimentación, etc- y la colocación de rótulos, toldos o marquesinas.

b) La implantación de usos industriales o terciarios y cualquier actuación que implique un cambio de uso o actividad.

c) La implantación de usos extractivos, como la extracción de áridos y la explotación de canteras.

d) La implantación de construcciones e instalaciones destinadas a explotaciones agrarias de todo tipo.

e) La implantación en el Suelo No Urbanizable tanto de usos residenciales no vinculados a la explotación del territorio, como de otros usos no rurales susceptibles de autorización.

f) La segregación de una finca sita en Suelo No Urbanizable, cuando el planeamiento vigente determine superficies mínimas de parcelación o de afectación a los diversos usos y/o construcciones.

g) La construcción o modificación de caminos y pistas en el Suelo No Urbanizable.

h) La apertura de cortafuegos.

i) La construcción de pozos y zanjas.

j) La instalación de camping y acampadas.

k) La instalación, incluso sin cimentación alguna, de construcciones prefabricadas, caravanas o cualquier otro elemento susceptible de ser utilizado como habitación, alojamiento o lugar de esparcimiento, con carácter fijo o de modo intermitente –fines de semana, determinadas épocas del año u otros períodos temporales–.

l) Lur mota oro biltegi gisa –ibilgailu, makina, material edo bestelako elementuen gordailu gisa– erabiltzea.

m) Lursailak bete eta egokitzea.

n) Jabari publikoari atxikitako espazio eta esparruan behin-behinekoz edo era egonkorrean okupatzea.

2. Lizentziari lotutako egintza horien zerrendak izaera ez mugatzailea dauka eta lizentzia beharrezkoa izango da, halaber, hirigintza plangintzan araututako lurzoru, hegalkin edo zorupean egindako jarduera oro burutzeko, bereziki, higiezina fisiko eraldatzea/aldatzea dakartenak, beharrezkoa ez dela espreski aurreikusten den kasuetan izan ezik.

3. Aurreko epigrafeetan aipatu diren egintzak Estatuaren nahiz Autonomia Erkidegoaren edo Zuzenbide Publikoko Erakundeek sustatuak direnean ere, udalerrriaren barruan kokatutako edozein lurzoru motatan ondasun publikoak administrazioen dituztelako, udal lizentziari lotuta egongo dira, indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzen arabera.

4. Hala ere, lizentzia hori ez da beharrezkoa izango eraikinen barruan instalazioen konponketa eta berriztapen lanak egiteko, segurtasun baldintzetan edo sare orokorrekiko hartu-eretan eragiten ez badute, ezta lurzoru, sabai edo paramentuen akaberan konponketa edo berriztapenak burutzeko ere, beti ere barneko espazioen banaketari, egitura elementuei edo kanpoko fatxadeti eragiten ez badiete. Dena den, Udalaren baimenak izapidetu beharko dira etxebizitza lokalen eta bestelako enpresa eta egokitzapen obrak gauzatzeko beharrezkoak izan daitezkeen polipastoak eta edukiontziak instalatzeko.

5. Aurreko epigrafeetan aipatzen den lizentziaren eskaera eta eskurapena, indarrean dauden legeen arabera, bere kasuan, derrigorrezkoak diren gainerako baimen, txosten, izapide eta abarren kaltetan izan gabe ulertuko da.

6. Zentzu horretan, obra txiki gisa hartzen dira barnealdean zein kanpoaldean egiten diren lanak, teknika erraza dutenak eta eraikuntza eta ekonomia aldetik garrantzi gutxiak direnak, bolumenari, erabilera objektiboari, eta etxebizitza eta lokalen kopuruari aldaketarik ez dakarkietenean eta eraikin edo instalazioaren egiturari zein kanpoko diseinuan edota bizigarritasun edo segurtasun baldintzetan eragiten ez dutenean. Horien artean daude etxebizitza, lokal eta eraikinen barneko antolaketan aldaketak egitea, horien erabilera edozein delarik ere; finakak, orubeak eta lurrak ixtea; babes hesiak, aldarmioak, eskormentuak eta obren eraikuntzarako beste elementu osagarriak ezartzea; estalkiak, ganbarak, fatxaden akaberak edo urbanizazio elementu puntualak –zerbitzuen hartuneak, zoladurak birjartzea, etab. konpontzea eta errotulu, olan, markesinak eta antzerakoak jartzea.

7. Bestalde, jarduerak ezartzea izango da, lursail, eraikin edo lokal jakin batean jarduera jakin bat garatzeko asmoz egiten den egintza, «ex novo» izaerakoa nahiz aurreko bat ordezkatzera datorrena; edozein kasutan, bai hirigintza alorreko araudian baita aplikagarriak izan daitezkeen beste legeko xedapenetan jasotako bete beharko da.

Hirugarrenei sor diezazkieketen eragozpenak, izango balira, eta indarrean dagoen legediak horri buruz ezartzen duena kontuan izanik, esandako jarduerak bereizgarriak izango dira, besteak beste, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko erregelamenduak edo hau ordezkatu edo osa dezaketen arauak agindutakoa betetzea derrigorrezkoa badute ala ez, eta beraz, derrigorrezkoa badute ala ez dagokion irakiera lizentzia.

l) El uso de todo tipo de terrenos como depósito –almacén de vehículos, maquinaria, materiales u otros elementos–.

m) Rellenos y acondicionamiento de terrenos.

n) La ocupación, sea con carácter provisional o estable, de espacios y ámbitos adscritos al dominio público.

2. La relación de actos sujetos a licencia expuesta anteriormente tiene un carácter no limitativo, debiendo ser objeto de licencia, asimismo, cualquier actuación sobre el suelo, vuelo o subsuelo regulada en el planeamiento urbanístico, y en particular aquellos que impliquen la transformación/alteración física del inmueble, salvo que esté prevista expresamente su innecesidad.

3. Los actos relacionados en los epígrafes anteriores que se promuevan por Órganos del Estado, de la Comunidad Autónoma o por Entidades de Derecho Público que administren bienes públicos sobre cualquier clase de suelo comprendido dentro del Término Municipal, estarán igualmente sujetos a licencia municipal, en las condiciones establecidas en la legislación vigente.

4. Sin embargo, no será precisa licencia para ejecutar en el interior de los edificios obras de reparación o renovación de instalaciones que no afecten a sus condiciones generales de seguridad o a las acometidas a las redes generales, y aquellas obras de reparación o renovación de terminaciones de suelos, techos y paramentos, que no afecten a las distribuciones de los espacios interiores ni a los elementos estructurales o a las fachadas exteriores. Sin embargo, deberán tramitarse permisos del Ayuntamiento para la instalación de polipastos y contenedores que puedan ser necesarios para la ejecución de las obras de reforma o acondicionamiento de locales de vivienda u otros.

5. La solicitud y obtención de la licencia a que se refieren los epígrafes anteriores será entendida sin perjuicio de las demás autorizaciones, informes, trámites, etc que de conformidad con la legalidad vigente sean, en su caso, preceptivos.

6. En ese sentido, se conceptúan como obras menores, las obras interiores o exteriores, de sencilla técnica y escasa entidad constructiva y económica que no supongan alteración del volumen, del uso objetivo, del número de viviendas y locales, ni afecten a la estructura o al diseño exterior o a las condiciones de habitabilidad o seguridad del edificio o instalación. Se incluyen, entre ellas la modificación de la distribución interior de las viviendas, locales y edificios, cualquiera que sea su uso; los cerramientos de fincas, solares y terrenos; la colocación de cercas o vallas de protección, andamios, apuntalamientos, y demás elementos auxiliares de construcción de las obras, la reparación de cubiertas, azoteas, terminaciones de fachada o elementos puntuales de urbanización –acometidas de servicios, reposiciones de pavimentación, etc- y la colocación de rótulos, toldos o marquesinas y otras similares.

7. Por su parte, se entenderá por establecimiento de actividades, la actuación encaminada a desarrollar en un terreno, edificio o local determinado una actividad concreta, bien con carácter ex novo, bien sustituyendo a otra anterior que, en cualquier caso, se deberá ajustar a lo dispuesto tanto en la normativa urbanística vigente como en otras disposiciones legales que resulten aplicables.

En atención a las molestias que, en su caso, puedan producir a terceros y a lo dispuesto al respecto en la legalidad vigente, dichas actividades se diferencian, entre otros aspectos, en función de que hayan de ajustarse o no a lo dispuesto en el Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, o normas que lo sustituyan o complementen y por lo tanto, de la preceptividad o no de la correspondiente licencia de apertura.

Jarduera ezartzeak beharrezko egiten badu edozein mota-tako obrak burutzea, haren eta hauen baimen eskaera guztiak espediente bakar batean bilduko dira eta Udalaren ebazpen bakarra edo aldi berekoa jasoko dute. Hala ez bada, nahikoa izango da dagokion irekiera edota jarduera lizentzia izapidetza.

8. Erabilera aldaketa bat –hirugarren sektorekotik etxebizitzara– planteatzen den kasuetan, hasieran, erabilera aldatzeko lizentzia bat izapidetu behar da eta ondoren, obra lizentzia bat. Jarduera hauek espreski arautuko ditu bizitokietarako hiri lurzorua finkatutako eremuetako beheko oinen eta beste lokal batzuen erabilera aldatzera zuzendutako jarduerak arautzen dituen Ordenantza batek.

9. Lurzoru urbanizaezinean, txabola, borda edo mendiko aterpeetarako lizentziak beti behin-behinean emango dira, gehienez 2 urteko eperako eta horiek igarotzen direnean, etengabe berritu ahal izango dira, horiek justifikatu dituzten jarduerak jarraitzen duen bitartean. Udalak eraikin horiek kentzeak ekar litzakeen gastuak bermatuko dituen banku abal bat eskatu ahal izango du, lizentzia berritzen ez bada.

Baso erabilera duten guneetan, lurzoru urbanizaezinen barruan, lizentziak eman ahal izango dira behin-behinean, gehienez urtebeteko eperako eta berritzeko aukerarik gabe, baso jarduerarekin lotutako tresna eta produktuak bildu eta kontserbatzeko behin-behineko eraikinak egiteko. Aurreko atalean bezala, Udalak banku abal bat eskatu ahal izango du.

10. Halaber, lurzorua kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Lege autonomikoaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, instalazio bat burutzeko edo jarduera bat handitzeko edota lur mugimenduren bat burutzeko lizentzia eskaera guztiak, lizentzia hori lortu aurretik lurzorua kalitatearen adierazpenaren prozedura burutu beharko dute, beti ere aitortzen hori aurretik edukitzen ez bada.

32. Artikulua. Lizentzia eskaeren eduki orokorra.

1. Lizentzia eskaera alkatetzari zuzenduko zaio eta interesatuak edo hau ordezkatzaren duen pertsonak sinatu beharko du. Sinatzailearen datu pertsonalak eta lizentzia eskatzearen arrazoia den eragiketa mota eta modalitatea –obra, jarduera edo instalazioa– jaso beharko dira.

Eskaerarekin batera –legediak ezartzen duen kopuruan eta gutxienez bikoiztuta, eta horrekin batera dokumentazioa euskarri informatikoan– beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko dira, lizentziaren izaeraren arabera, proiektu honetan adierazitakoak eta, kasua balitz, beste xedapen batzuek eska ditzaketanak barne.

Administrazioaren beste erakunde batzuek aurretik igorri behar duten baimena edo txosten, edo horien aurrean buru beharreko beste izapidetzaren bat behar duten espedienteen kasuetan, eta beti ere dagokion izapidetza Udalak burutu behar duenean, gutxienez bost (5) izango dira aurkeztu beharreko dokumentuen kopiak.

Dokumentu tekniko guztiak eskatzaileak sinatu beharko ditu eta hurrengo artikuluan adierazitako salbuespenekin, teknikari eskudunak, kasu horretan dagokion Elkargo Ofizialaren oniritzia ere jasoz.

2. Lizentzia eskaerak beti beren helburu diren jardueren edukia, xedea eta irismena zehazki eta garbi ulertzeko beharrezkoak diren dokumentu eta datu guztiak barne hartuko dituzte.

Si la implantación de la actividad hace necesaria la ejecución de obras de algún tipo, las solicitudes de autorización correspondientes a éstas y a aquella podrán ser objeto de un único expediente y de una única o simultánea resolución municipal. En caso contrario bastará con la tramitación de la correspondiente licencia de apertura y/o actividad.

8. En los casos en que se plantee un cambio de uso –terciario a vivienda– se deberá tramitar inicialmente una licencia de cambio de uso y posteriormente licencia de obras. Estas actuaciones, quedarán expresamente reguladas mediante una Ordenanza reguladora de las actuaciones tendentes a la modificación de uso de plantas bajas y otros locales en ámbitos consolidados de Suelo Urbano residencial.

9. En el Suelo No Urbanizable, las licencias para txabolas, bordas o refugios de montaña se realizarán siempre en precario, con un plazo máximo de 2 años, transcurridos los cuales, podrá renovarse de forma sucesiva mientras continúe la actividad que las ha justificado. El Ayuntamiento podrá exigir el depósito de un aval bancario que garantice los posibles gastos de eliminación de dichas edificaciones, en el caso de no renovarse su licencia.

En las zonas consideradas de uso forestal, dentro del Suelo No Urbanizable, se podrán otorgar licencias, en precario, por un plazo máximo de un año no renovable, para la construcción de edificaciones provisionales para el almacenamiento y conservación de útiles y productos relacionados con la actividad forestal. Al igual que en el apartado anterior, el Ayuntamiento podrá exigir un aval bancario.

10. Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el 17 de la Ley Autonómica 1/2005, de 4 de febrero, de Prevención y corrección de la contaminación del suelo, todas aquellas solicitudes de licencias de instalación o ampliación de una actividad o ejecución de un movimiento de tierras habrán de llevar a cabo el procedimiento de declaración de la calidad del suelo previamente a la obtención de la citada licencia, siempre y cuando no se cuente de forma previa con dicha declaración.

Artículo 32. Contenido general de las solicitudes de licencia.

1. La solicitud de licencia, dirigida a la Alcaldía y suscrita por el interesado o persona que lo represente, deberá contener los datos personales del firmante y la identificación del tipo y modalidad de la operación –obra, actividad o instalación– para la que se solicita licencia.

Con la solicitud se acompañarán –en la cantidad que establezca la legislación y como mínimo por duplicado acompañado de la documentación en soporte informático– los documentos necesarios, según la naturaleza de la licencia, incluidos los señalados en este proyecto y los que, en su caso, puedan exigir otras disposiciones.

En los casos de expedientes que deban someterse a autorización o informe previo a emitir por otros organismos de las Administración, o a cualquier otro trámite a efectuar ante los mismos y siempre que la correspondiente tramitación deba ser realizada por el Ayuntamiento, se aumentará a un mínimo de cinco (5) el número de copias de los documentos a presentar.

Todos los documentos técnicos serán suscritos por el solicitante y con las salvedades señaladas en el siguiente, por facultativo competente, incluyendo en tal caso el visado del Colegio Oficial correspondiente.

2. Las solicitudes de licencia incluirán siempre todos aquellos documentos y datos que resulten necesarios para una detallada y clara comprensión del contenido, objeto y alcance de las actuaciones a que se refieran.

Izaera orokorrarekin, eta horri buruz adierazten diren salbuespenen kalterako izan gabe, dagozkion proiektu teknikoek ondoko dokumentuak barne hartuko dituzte:

a) Gauzatu nahi diren obra, jarduera edo instalazioak deskribatzen dituen memoria. Bertan justifikatu beharko da horiek indarrean dagoen Hirigintza Araudira eta bere kasuan aplikagarriak diren gainerako xedapenetara egokitzen direla. Bertan jasoko dira, halaber, obrak hasteko, burutzeko eta amaitzeko epeak, obren gauzatzeko programa baldintzatzen duen beste edozein gorabehera, jardueren ezarpena, etab.

Obra txikien eta garrantzi gutxiko beste jarduera batzuen lizentzia eskaerak direnez, ulertuko da ez dela beharrezkoa izango memoria hori edota aipatu kontuetakoren baten edo batzuen justifikaziorik aurkeztea.

b) Bere kasuan eta indarrean dagoen hirigintza plangintzan, Ordenantza hauetan edota dagoen sektoreko legedian xedatutakoaren arabera administrazioko beste erakunde batzuek igorri behar dituzten txosten eta baimenak, beti ere horien eskaera lizentzia eskatu duenari badagokio.

c) Eragindako esparruaren kokapen plano, 1/5000 eskalan.

d) Eragindako lurzatiaren egungo egoeraren plano topografikoa, dauden eraikin, azpiegitura eta zuhaitzi guztiak bilduz dituen, 1/200 edo 1/500 eskalan.

Lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean kokatutako lursailen kasuan, eta eragindako eremuaren azaleraren arabera, Udalak 1/1000 edo 1/2000 eskalak erabiltzea baimendu ahal izango du.

e) Obra edo instalazioen kokapen eta zuinketa plano, egungo egoera planoaren gainean marraztuta eta haren eskala berean, lur mugimenduen, urbanizazio obren eta eraikuntza obren lizentzia eskatzen den kasuetan.

Plano horrek, egin beharreko obren eta instalazioen ezarpenen deskribapen grafikoa jasotzeaz gain, ezarpen horren sestra maila nagusiak eta bertako elementu nagusiek inguruko elementu adierazgarriekiko oinplanoan duten distantzia adierazi beharko ditu. Hortaz, adierazpen horien arabera, posible izan behar da, inolako nahasmenik gabe, azaleko eta lurrazpiko perimetroaren transposizio zuzena egitea lursailera.

f) Aurrekontu zehatza. Lizentzia eskaeran obrak egitea aurreikusten bada, ondoko elementu hauek adierazi beharko dira: Obra unitateen banaketa, unitate horien neurketa eta prezioa, kapitulu, lanbide eta teknologien arabera sailkatuta, etekin industrialia eta aplikatu beharreko BEZa sartuz.

3. Proposatutako helburuen eduki eta irismenaren arabera, Udalak, modu justifikatuan ondokoa egin dezake: Beharrezkotzat jotzen diren dokumentu gehigarriak aurkeztea, eskatu baina beharrezkotzat jotzen ez diren dokumentuetako bat aurkezteko betebeharra bertan behera uztea; azken horien edukia berregokitzea; ondorio horietarako eraikuntza obra jakin batzuk, horien tamaina txikia dela-eta, obra txikitat jo ditzake, eskatutako dokumentazioa gehiegizkoa dela uste bada.

4. Aurreko ataletan aipatutakoaz eta, kasua balitz, gauzatu nahi den obra, jarduera edo instalazioaren arabera aplikagarriak diren beste legezko xedapenek jasotzen dutenaz gain, lizentzia eskaerak jarraian zehazten den dokumentazioa bildu beharko dute:

a) Partzelazioak

— Jabetzaren Erregistroaren ziurtagiria, eragindako finken edo finken jabari baldintzak kreditatzen dituen.

Con carácter general, y sin perjuicio de las excepciones que al respecto se indican, los proyectos técnicos correspondientes incorporarán:

a) Memoria descriptiva de las obras, actividades o instalaciones que se pretenden ejecutar, justificando su adecuación a la normativa urbanística vigente y a las restantes disposiciones en su caso aplicables; plazos de inicio, realización y finalización de las obras; cualquier otra circunstancia que condicione el programa de ejecución de las obras y la implantación de las actividades, etc.

b) Si estas soluciones no fuesen viables, se dispondrán en fachada; en estos casos, se deberán cubrir con elementos que eviten la vista de la ropa tendida desde el exterior y cuyo diseño deberá integrarse en el conjunto de la fachada del edificio.

Artículo 83. Tratamiento de fachadas en plantas bajas.

a) Los proyectos de nueva edificación deberán incluir entre sus definiciones el tratamiento de los elementos macizos de la fachada de la planta baja del edificio, los cuales deberán quedar terminados con el resto del mismo. La proporción de la anchura de los elementos macizos no será inferior a 1/5 del frente total de la fachada, debiendo corresponder dichos elementos con zonas de paramento macizo en toda la altura del edificio. Estas reglas serán asimismo aplicables en el caso de las fachadas interiores de los porches.

b) Estos elementos se considerarán como elementos permanentes de la fachada, debiéndose resolver su diseño y tratamiento de materiales, que serán permanentes y de difícil deterioro, de manera coherente con el conjunto del edificio.

Para su modificación se exigirá la presentación de un plano completo que recoja la fachada resultante y garantice que la coherencia y unidad del tratamiento se mantienen.

c) En el caso de reforma o habilitación de locales en edificaciones consolidadas, deberán como norma general, respetarse las reglas anteriores, adecuando el tratamiento de la fachada a lo preexistente.

d) El tratamiento del techo de los porches será uniforme en cada tramo, en lo que respecta a las dimensiones de los elementos estructurales y a la disposición del alumbrado, prohibiéndose la aparición de desagües vistos y los falsos techos de escayola. De igual modo, el revestimiento de los pilares de los porches deberá realizarse con materiales de durabilidad adecuada.

e) Las marquesinas de los locales de planta baja en una misma parcela se colocarán a la misma altura, pudiendo adoptar el Ayuntamiento las disposiciones oportunas sobre su diseño y tratamiento, con el fin de asegurar una adecuada homogeneidad compositiva en el conjunto del edificio.

84. Artikulua. Errotuluak eta iragarki argidunak.

1. Beheko oineko lokalen errotulu, iragarki edo publizitate motiboak fatxadaren azalerarekiko paraleloan garatuko dira, gehienez 10 cm-ko irtengunea izango dute, espaloirean sestrarekiko gutxienez 2,50 m-ra kokatuta egongo dira eta ez dute lehenengo oinaren zoruaren forjatuaren beheko kota gaindituko.

Beren luzerako garapenak eta kokapenak kontuan hartuko ditu horri buruz Ordenantza hauetan ezarritako zehaztapenak.

Ez da onartzen horiek eraikinaren goiko oinen fatxadan ezartzea.

2. Edozein oinen baoetan koka daitezkeen persiana kaxak ez dira fatxadaren azaleratik irtengo.

Fatxadaren konposizio orokorrarekin bat etorriko dira, bere konfigurazio orokorra aldatu eta desitxuratu gabe. Ezingo dituzte beheko oineko fatxadaren elementu iraunkorrak inbaidu, ezta horiekiko perpendikulari kokatu ere.

85. Artikulua. Finken banaketak eta itxitura.

a) Finken bereizketak eta bidearekin muga egiten duten itxiturak burdin sarearekin edo murre gaineko burdin sarearekin eraikiko dira eta gehienez 2,00 m-ko altuera edukiko dute, murrurena edo itxitura itsuarena ez delarik izango 1,20 m-tik gorakoa.

Aipatu altuerak ondoko puntuetan neurtuko dira:

— Finkak bereizten dituztenetan, murruren oinarri den lur-zoruaren mailatik.

— Bide publikoarekiko mugakide diren itxituretan, horren sestratik. Partzelaren lurraren maila bide publikoaren gainetik dagoenean, erreferentzia gisa partzelaren maila hartuko da.

b) Hormak harri naturalarekin edo bistako adreiluarekin amaitu beharko dira. Debeztatuta daude margotutako zarpiatuzko eta bistako hormigoizko blokezko akaberak. Udalak, udal teknikarien alde txostena jaso ondoren, bestelako tratamendu alternatiboren bat onar dezake.

Era berean, bereizketak edo itxiturak landaretza elementu jarraituekin —ezpela, etab. egin ahal izango dira, altuera muga berak mantenduz. Itxiturarako tamaina handiagoko zuhaitzak ere erabili ahal izango dira, beti ere unitateen arteko tartea 5,00 m-tik gorakoa denean eta, edozein kasutan, aurreikusitako altueren gainetik ikuspegia eragozten duen itxiturarik ez dakarrenean.

86. Artikulua. Sestra gainean eraiki ezin daitezkeen erabilera pribatuko espazioen kontserbazioa eta apaindura.

a) Jabetza pribatuko lorategiak, patioak edo espazio libreak derrigorrez apaindura eta itxura baldintza egokietan mantendu behar dira, beharrezko urbanizazio baldintzak hornituz —euri uren bilketa, argiteria, etab.—.

b) Soilik itxi gabeko apaindura eraikuntzak eta erabilera nagusiaren osagarriak diren erabileretara zuzendutako eraikuntzak soil-soilik Arau Partikularretan espreski adierazten diren kasu eta baldintzetan onartuko dira; eta horiei dagokienez, Udalak itxitura, kolore eta forma jakin batzuetako materialak erabil daitezkeen eskatu ahal izango du, inguruneari hobe egokitu zaitzkiezen.

Artículo 84. Rótulos y anuncios luminosos.

1. Los rótulos, anuncios o motivos publicitarios de los locales de planta baja se desarrollarán paralelamente a la superficie de la fachada, con un saliente máximo de 10 cm, estarán situados al menos a 2'50 m sobre la rasante de la acera y no superarán la cota inferior del forjado de suelo de la planta primera.

Su desarrollo longitudinal y su colocación atenderá a las determinaciones adoptadas al respecto por estas Ordenanzas.

No se admite su implantación en la fachada de las plantas altas del edificio.

2. Las cajas de persianas que se puedan instalar en los huecos de cualquier planta, no sobresaldrán de la superficie de fachada.

Se establecerán en concordancia con la composición general de la fachada, sin alterar ni deformar su configuración general. No podrán invadir los elementos permanentes de la fachada de la planta baja ni situarse perpendicularmente a ella.

Artículo 85. Separaciones y cierres de fincas

a) La separación de fincas entre sí y los cierres que limiten con la vía pública, se construirán con verja sobre muro y podrán tener una altura máxima de 2,00 metros, siendo la del muro o cierre ciego, no superior a 1,20 m.

Las alturas referidas se contarán:

— En los de separación de fincas, desde el nivel del terreno en que se apoye el muro.

— En los cierres lindantes con la vía pública, desde la rasante de la misma. En los casos en que el nivel del terreno de la parcela se sitúe por encima de la vía pública, se tomará como referencia el nivel de la parcela.

b) Los muros deberán terminarse con piedra natural o ladrillo cara vista. Se prohíben las terminaciones con enfoscados pintados y las de bloques de hormigón vistos. El Ayuntamiento, previo informe favorable de los técnicos municipales, podrá admitir otros tratamientos alternativos.

Podrán asimismo realizarse con elementos de vegetación continuos —boj, etc.—, manteniéndose las mismas limitaciones de altura. Podrá incorporarse al cierre arbolado de mayor porte, siempre que la distancia entre cada unidad sea mayor de 5,00 m, y en cualquier caso no dé lugar a un cierre impermeable a la visión por encima de las alturas previstas.

Artículo 86. Conservación y ornato de los espacios de uso privado no edificados sobre rasante.

a) Los jardines, patios o espacios libres de propiedad particular se mantendrán obligatoriamente en adecuadas condiciones de ornato y decoro, dotándose de las condiciones de urbanización necesarias —recogida de aguas pluviales, alumbrado, etc.—.

b) Sólo se admitirán construcciones ornamentales no cerradas y construcciones destinadas a usos auxiliares del uso predominante en los casos y condiciones que expresamente se señalen en las Normas Particulares; y respecto de las cuales el Ayuntamiento podrá exigir la adopción de determinados materiales de cerramiento, colores y formas que se adapten mejor al entorno.

5.3.7. JABARIRAKO BALDINTZA OROKORRAK

87. Artikulua. Jabarirako araubide orokorra.

a) Bizitoki erabilera duten lurzatiak jabari pribatukoak izango dira ondoko artikuluetan ezartzen diren baldintza eta mugen arabera.

b) Aipatu partzelen barruan, jabari publikoko edo Administrazioaren ondare izaerako ondasunak egon ahal izango dira.

88. Artikulua. Erabilera publikoko zortasunen gaineko baldintzak.

a) Kasu bakoitzean, Udalari lagako zaizkio plangintzak ezarritako erabilera publikoko zortasunen eta zerbitzuen azpiegituren bideraketen igarobideen eskubide errealak.

b) Plangintzak bizitoki erabilera partzeletan ezartzen dituen oinezkoen zirkulazio eta egonaldien erabilera publikoko zortasunak mugarik gabe burutuko dira eta, eragindako esparruetan ez da baimenduko aipatu mugapenak eragiten dituzten elementuak eraikitzea edo kokatzea, Udalak aurretik emakida administratibo baten bidez espreski baimentzen duenean izan ezik.

c) Xedapen horiek jada garatutako bizitako erabilera partzelei ere aplikagarri izango zaizkie; horietan jada erabilera publikoko zortasunak finkatzen dira, nahiz eta horiek ez diren espreski adierazten dagokion hirigintza plangintzan.

d) Erabilera publikoko zortasunen mendean dauden eremuetan, Udalari dagozkio zerbitzuaren kostuak eta argiteria publikoaren mantentze lanak –baztertu egingo dira partzelaren jabeek instalatutako argi puntu gehigarriak edo beharrezkoak ez direnak- asfaltozko geruzaraino, hauek barne hartu gabe, doazen azalera akaberen mantentze lanen kostuak eta estaldurak –lokalen fatxadenak eta sabaienak izan ezik-.

Halaber, Udalari edo dagokien konpainiei dagokie partzelari eragiten dioten azpiegitura orokorren sareen elementuak mantentzea.

Eremu hauetan, aldiz, jabeen kargura izango da karrerapeen barnealdeko fatxaden, egitura elementuen, isolamenduen eta kontserbazioa eta iragazgaizpenak, baita, kasua balitz, partzelarako hiri zerbitzuetako sareetatik hartuneak egitea ere.

89. Artikulua. Fatxadetan zerbitzu eta seinaleztapen elementuak kokatzea.

a) Udalak, bere kargura, instalatu, kendu edo aldatu ahal izango dituzte, eta jabeek hori onartu beharko dute, euskarriak, seinaleak edo interes orokorreko beste edozein zerbitzu elementu, ezarpen hori beharrezkoa edo komenigarria denean eta horiek espazio publikoetan ezartzeko alternatiba egokirik ez dagoenean.

b) Finketan edo eraikinetan obrak edo eraispenak burutzegatik zortasun publikoa osatzen duten elementu horiek eraginen bat jasango balute, finkaren jabeak obrek dirauten bitartean behin-behineko zerbitzua mantentzeko eta eragindako elementuak Udalak adierazitako baldintzetan birjartzeko betebeharra izango du.

90. Artikulua. Partzelen arteko zortasunak.

a) Baldintza orokorrak: Bizitoki erabilera partzelek eta horiek okupatzen dituzten eraikinek zortasun zehatzak izango dituzte, partzela horien jabeek plangintzatik eratorritako eskubideak erabat eta era librean erabil ditzaten.

5.3.7. CONDICIONES GENERALES DE DOMINIO

Artículo 87. Régimen general de dominio.

a) Las parcelas de uso residencial serán objeto de dominio privado en las condiciones y con las limitaciones que se establecen en los siguientes artículos.

b) Dentro de las referidas parcelas, podrán existir bienes de dominio público o de carácter patrimonial de la Administración.

Artículo 88. Condiciones relativas a las servidumbres de uso público.

a) En cada caso, se cederán al Ayuntamiento los derechos reales de servidumbre de uso público y paso de conducciones de infraestructuras de servicios establecidos por el planeamiento.

b) Las servidumbres de uso público de circulación peatonal y estancia establecidas por el planeamiento sobre las parcelas de uso residencial, se ejercerán sin ninguna restricción y, en los ámbitos afectados, no se permitirá la construcción o colocación de elementos que den lugar a las citadas restricciones, salvo que el Ayuntamiento lo autorice expresamente previa concesión administrativa.

c) Estas disposiciones serán asimismo aplicables a las parcelas de uso residencial ya desarrolladas, en las que se consolidan las servidumbres de uso público, aún cuando las mismas no se señalen de forma expresa en el planeamiento urbanístico correspondiente.

d) En las áreas sometidas a servidumbre de uso público, corresponderán al Ayuntamiento los costes de servicio y el mantenimiento del alumbrado público – se excluirán los puntos de luz adicionales o innecesarios instalados por los propietarios de la parcela-; y del mantenimiento de los acabados superficiales hasta las telas asfálticas sin incluir éstas; y revestimientos con excepción de los de las fachadas de locales y techos-.

Asimismo corresponderá al Ayuntamiento o a las compañías correspondientes, el mantenimiento de los elementos de las redes de infraestructuras generales que afecten a la parcela.

En estas áreas, por el contrario, será a cargo de los propietarios la conservación de las fachadas interiores de los porches, los elementos estructurales, los aislamientos y las impermeabilizaciones, así como, en su caso, la de las acometidas a la parcela de las redes de servicios urbanos.

Artículo 89. Colocación de elementos de servicio y señalización en las fachadas.

a) El Ayuntamiento podrá instalar, suprimir o modificar, a su cargo, y los propietarios vendrán obligados a consentirlo, soportes, señales o cualquier otro elemento de servicio de interés general cuando esa implantación resulte necesaria o conveniente, y no existan alternativas adecuadas de implantación de los mismos en los espacios públicos.

b) Siempre que por realización de obras o derribos en las fincas o edificios, se vieran afectados dichos elementos constitutivos de servidumbre pública, vendrá obligado el propietario de la finca a mantener el servicio provisional durante la ejecución de las obras y a la reposición de los elementos afectados en las condiciones que les sean señaladas por el Ayuntamiento.

Artículo 90. Servidumbres entre parcelas

a) Condiciones generales: Las parcelas de uso residencial y las edificaciones que las ocupen estarán sujetas a las servidumbres precisas para que los propietarios de estas parcelas puedan ejercer plena y libremente los derechos que dimanen del planeamiento.

b) Estolderiaren bide-zorra: Saneamendu kolektoreareki edo, bestela, gertuko ubidearekiko kokapenarengatik beharrezko konexioa beste jabereren batenak zeharkatu gabe egin ezin duten finken jabeek beharrezko hodiak ezarri ahal izango dituzte besteren finka horietan, ahalik eta kalte eta eragozpen gutxien eragingo dituzten trazatu eta baldintzekin, eta eragin-dako jabeari sortzen diren gastuen zenbatekoa ordainduz.

c) Zimendatzeko zapatak eraikin mugakideetan: Bi eraikin mugakide elkartzaren diren gunean, zimendatzeko zapatak amankomunak izan ahalko dira, eragindako partzela bakoitzean dagokion azalera okupatuz.

Ondorio horietarako partzela horien artean elkarrekiko zortasun aktibo eta pasibo bat dagoela ulertuko da.

d) Garajeetara sartzeko zortasunak: Indarrean dagoen plangintzan espreski adierazten diren kasuetan, bizitoki erabilera duten partzelen sarbide eta garajeak —edo kasua balitz partzela bera, haiek eraiki ez balira— ezarritako partzela mugakideen garajeetara sartzeko zortasuna izango dute.

e) Mankomunatuak patio bat partekatzen duten finka mugakideen jabeek, patio horretaz gozatzeko eta bere xedea betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren erabilera, konponketa, kontserbazio eta garbiketari eta elkarrekiko muga, baldintza eta zortasunen eraketari buruzko erregelamendu bat osatuko dute.

Udalak soilik ofizialki erregelamendu hori gauzatzearen eta bere edukia berri duenean baimendu ahal izango du mankomunatuak patio horren eraikuntza.

Erregelamendu hori eskritura publikoan jasoko da eta Jabeztaren Erregistroan inskribatzeko eskatuko da, eragindako finkei dagokienez.

Baldintza horiek betetzen direla justifikatu beharko da, eraikinen lehen erabilpeneko lizentzia eman aurretiko baldintza gisa.

91. Artikulua. Derrigorrezko jabetza loturak.

Eraikuntza probetxamenduaren ondorioetarako zenbait gabeko estalkipeko espazioak ezingo dira inola ere jabetza independenteen elementu gisa erregistratu.

Espazio horiek, zatiketa baten ondorio ez direnean, etxebizitzek edota eraikina okupatzen duten gainerako erabilerek osatzen duten komunitateari erantsitako jabeakidetzaren elementu gisa eratu beharko dira, eta elementu bereizietan zatitzen badira, etxebizitzek eta eraikina osatzen duten gainerako lokalei erantsitako elementu zatietan gisa.

5.4. INDUSTRIA ERABILERA DUTEN PARTZELETARAKO ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZA OROKORRAK

92. Artikulua. Eraikuntza probetxamendua eta eraikuntzaren forma arautzeko baldintza orokorrak.

Aipatu partzela mota ezberdinek kasu bakoitzean dagozkien Arau Partikularrek ezartzen dituzten eraikuntza probetxamendua eta eraikuntzaren forma arautzeko baldintzak beteko dituzte.

1. Probetxamendu baldintza orokorrak:

a) Industria partzeletan, eraikuntzak dagokion Arau Partikularrean jasotako «Lerrokadurak eta sestak» planoan ezarritako eraikuntza lerrokaduretarako egokitu beharko dira.

b) Servidumbre de paso de alcantarillado: Los propietarios de aquellas fincas que, por su situación respecto del colector de saneamiento o, en su defecto, cauce próximo, no puedan efectuar la conexión debida sin atravesar otros pertenecientes a distinto dueño, podrán instalar las tuberías necesarias en dichas fincas ajenas, con el trazado y en las condiciones que causen menos perjuicios y molestias, y resarcido al propietario afectado el importe de los gastos que se originen.

c) Zapatas de cimentación en edificaciones colindantes: En la zona de confluencia de dos edificaciones colindantes, las zapatas de cimentación podrán ser comunes, ocupando la superficie correspondiente en cada una de las parcelas afectadas.

A estos efectos, se considerará que existe entre dichas parcelas una servidumbre recíproca activa y pasiva.

d) Servidumbres de acceso a garajes: En los casos que se señalan expresamente en el planeamiento vigente, los accesos y garajes de las parcelas de uso residencial —o en su caso la propia parcela si aquellos no se hubiesen construido— quedarán sometidos a la servidumbre de acceso a los garajes de las parcelas colindantes establecidos.

e) Los propietarios de las fincas colindantes que compartan un patio mancomunado, formalizarán un reglamento sobre uso, reparación, conservación y limpieza de ese patio y constitución de las limitaciones, condiciones y servidumbres recíprocas, que resulten necesarias o convenientes para su disfrute y cumplimiento de su finalidad.

El Ayuntamiento sólo podrá autorizar la construcción del patio mancomunado después de tener conocimiento oficial de la formalización y contenido de ese reglamento.

Dicho reglamento será elevado a escritura pública y se solicitará la inscripción del mismo en el Registro de la Propiedad respecto de las fincas afectadas.

La justificación del cumplimiento de estos requisitos deberá efectuarse como condición previa al otorgamiento de la licencia de primera utilización de los edificios.

Artículo 91. Vinculaciones de propiedad obligatoria.

Los espacios bajocubierta no computados a los efectos del aprovechamiento edificatorio, no podrán registrarse en ningún caso como elementos de propiedad independientes.

Dichos espacios deberán configurarse, en caso de no ser objeto de división, como elementos en copropiedad anejos a la comunidad que configuren las viviendas, y/o los demás usos que ocupen el edificio; y en caso de subdivisión en elementos diferenciados, como anejos inseparables de las viviendas y demás locales en que se haya dividido el edificio.

5.4. ORDENANZAS GENERALES DE USO Y EDIFICACION PARA LAS PARCELAS DE USO INDUSTRIAL

Artículo 92. Condiciones generales de regulación del aprovechamiento edificatorio y de la forma de la edificación.

Los diferentes tipos de parcelas de referencia cumplimentarán en cada caso las condiciones de regulación del aprovechamiento edificatorio y de la forma de la edificación que establezcan las Normas Particulares correspondientes.

1. Condiciones generales de aprovechamiento:

a) En las parcelas industriales, las construcciones deberán adecuarse a las alineaciones de edificación establecidas en el plano de «Alineaciones y rasantes» incluido en la Norma Particular correspondiente.

Lerrokadura horiek, ezarritako altuera eta profilaren baldintzekin batera, eraikuntzaren gehienezko ingurakaria zehazten dute. Honek, aldiz, eraikuntza probetxamenduaren gehienezko mugak —azalera eraikigarrian— ere errespetatu beharko ditu; horiek ere Arau Partikularretan zehazten dira. Beraz, ezingo da okupatu aipatu gehienezko ingurakaria bere osotasunean, horrek baimendutako azalera eraikigarriaren muga gainditzea baldin badakar.

b) Aipatu planoetan espreski eraiki ezin daitezkeen erabilera pribatuko partzela gisa hartzen diren industria partzelen zatietan, soil-soilik instalazioen elementuak, zerbitzuen azpiegitura zentroak, baskulak, biltegi edo teilape arinak, itxi gabeak eta izaera iraunkorra ez dutenak, ezartzea baimenduko da, apartatutako ibilgailuak babesteko, eta hauek ez dira zenbatuko ezarritako eraikuntza probetxamenduaren mugen ondorioetarako.

Ezingo da ezarri, aldiz, eraikitako inolako elementurik erabilera publikoko zortasunaren 5,00 m-ko zerrendan, indarrean dagoen legediak ibai ubideen ertzetatik zehazten duena, nahiz eta hori industria partzela jakin baten zati izan.

c) Plan Orokor honetan zehaztutako probetxamendu eta bolumenaren baldintza orokorrak betetzen ez dituzten existitzen diren eraikinak ordezkatuko dituzten eraikuntzak derrigorrez eraikuntza araubide berrira egokitu beharko dira.

d) «Zonakatzexehatua» planoek industria erabilera duten partzeletan zehaztutako partzela eraikigarrien azalera, kalifikazio xehatuaren zehaztapen arauemailearen izaera izango du, beraz, izapidetzen diren Xehetasun Azterlanek ezingo dituzte horiek inola ere areagotu. Hauek, aldiz, eraikuntza lerrokaduren kokapena aldatu ahal izango dute —ez, ordea, partzela lerrokadurak, halaber, aipatu mailako izaera arauemailea izango dutenak—, partzelen barruan eraikuntzek oinean duten antolaketa aldatuz.

2. Eraikuntza baldintza orokorrak:

a) Industria partzelak okupatzen dituzten eraikuntzen urbanizatutako lursailaren sestra eta maila eusleak existitzen zen urbanizazioarenak izango dira hau finkatuta dagoen areetan; eta urbanizazio obren proiektuek ezartzen dituztenak, garatzen diren bide area edo elementu berrietan edo existitzen den urbanizazioa aldatzen den horietan.

Erabilera publikoko zortasunak dituzten partzelen areek beren urbanizazioaren sestrak eta mailak inguratzen dituzten espazio publikoentara egokituko dituzte. Era berean, eraiki ezin daitezkeen erabilera pribatuko areek beren perimetroan aurrean dituzten espazio publikoen sestrak eta mailak mantenduko dituzte, aurkakoa adierazten den kasuetan izan ezik.

b) Baimendutako gehienezko eraikuntza altuera area edo sektore bakoitzean finkatuko dena izango da. Profil horren gainean eraikina edertzea ahalbidetuko duten elementu bereziak onartuko dira, gehienez 2,50 m-ko altuera dutenak; azalera hori probetxamenduaren ondorioetarako zenbatuko da, baldin eta argia ez bada, eta udal irizpideen arabera egokia baldin bada gauzatuko da.

Halaber, instalazio elementuek eta industria ekipoek aipatu altuera gainditzea onartuko da, beren ezaugarri teknologikoen gainetik saihestea ezinezkoa bada. Kasu honetan elementu horiek lurraren mailan kokatzea eskatuko da —hori eragozten duen arrazoirik ez balego—, sekula ez eraikinaren goiko oinetan, horren eragin bisuala ahalik eta txikiena izan dadin.

Dichas alineaciones, junto con las condiciones de altura y perfil de edificación establecidas, definen la envolvente máxima de edificación. Ésta, sin embargo, deberá respetar también los límites máximos de aprovechamiento edificatorio —en superficie edificable— que asimismo se definen en las Normas Particulares, por lo que no se podrá ocupar en su totalidad la citada envolvente máxima, si ello implicara la superación del límite de superficie edificable autorizado.

b) En aquellas partes de las parcelas industriales que se califican expresamente en los planos citados como no edificables de uso privado, se autorizará exclusivamente la implantación de elementos de instalaciones, centros de infraestructuras de servicios, básculas, depósitos o tejavanos ligeras, no cerradas y de carácter no permanente, para la protección de vehículos aparcados, los cuales no serán computables a efectos de los límites de aprovechamiento edificatorio establecidos.

No se podrá implantar, sin embargo, elemento construido alguno en la franja de 5,00 m de servidumbre de uso público, definida por la legislación vigente a partir de las riberas de los cauces fluviales, aún cuando la misma forme parte de una parcela industrial determinada.

c) Las construcciones que sustituyan a edificaciones existentes que no cumplan las condiciones generales de aprovechamiento y volumen definidas desde este Plan General, deberán ajustarse obligatoriamente al nuevo régimen de edificación.

d) La superficie de las parcelas edificables definidas en las parcelas de uso industrial por los planos de «Zonificación Pormenorizada», tendrán el carácter de determinación normativa de calificación pormenorizada, por lo que en ningún caso podrán ser incrementadas por los Estudios de Detalle que se tramiten. Estos sin embargo, podrán modificar la disposición de las alineaciones de edificación —no así las alineaciones de parcela que poseerán asimismo carácter normativo al nivel señalado—, modificando la disposición en planta de las edificaciones en el interior de las parcelas.

2. Condiciones generales de edificación:

a) Las rasantes y niveles de apoyo en el terreno urbanizado de las edificaciones que ocupan parcelas industriales, serán las de la urbanización existente en aquellas áreas en las que ésta se consolida; y los que se establezcan por los proyectos de obras de urbanización en las áreas y elementos viarios de nuevo desarrollo o en los que se modifica la urbanización existente.

Las áreas de parcelas sometidas a servidumbres de uso público adecuarán sus rasantes y niveles de urbanización a los de los espacios públicos en los que se integran. De igual modo las áreas no edificables de uso privado mantendrán en su perímetro las rasantes y niveles de los espacios públicos a los que dan frente, salvo indicación expresa en sentido contrario.

b) La altura de edificación máxima autorizada será la que se fije en cada área o sector. Sobre dicho perfil se admitirán elementos singulares que permitan realzar el edificio, con una altura máxima de 2,50 m; dicha superficie computará a efectos de aprovechamiento, salvo que sea diáfano y su ejecución quedará supeditada a su oportunidad según los criterios municipales.

Asimismo, se admitirá que superen el límite de altura citado los elementos de instalaciones y equipo industrial cuyas características tecnológicas lo hagan ineludible. En este caso se exigirá que dichos elementos —si no existieran razones que lo impidan—, se sitúen a nivel del terreno y nunca en las plantas altas de la edificación de forma que su impacto visual sea el menor posible.

c) Gehienezko oin kopurua bi (2) izango da. Solairuarte edo tarteko oinak eraikitzea onartuko da oin bakoitzaren barruan zehaztuko diren ezaugarriekin; azalera hori ez da zenbagarria izango eta osatzen duen oinean era egokian sartuko da. Ordenantza hauetan aurreikusitako erabilera baldintzetan, sotoko oin bat eraikitzea baimentzen da; horren altuera libre gutxienez 2,50 m-koa izango da eta gehienez, 3,50 m-koa.

2. motako partzela eraikigarriak (12. area «Zelaeta»): Soil-soilik eraikin estali baina irekiak baimentzen dira, markesina eraakoak.

3. Eraikuntza osatzen duten elementuen baldintza geometrikoak:

a) Gutxienezko altuera libre: 2,50 m-koa izango da sotoko oinetan; 3,50 m-koa, ekoizpena zuzendutako goiko oinetan eta 2,50 m-koa bulego, komun, biltegiatze eta enpresaren bestelako erabilera osagarrietara zuzendutako guneetan.

b) Erdisotoak baldin badaude, hauek gutxienezko neurri eta altuera libreei dagokienez beheko oinetarako ezarritako baldintzak beteko dituzte eta lokal independente gisa onartuko dira, beti ere gutxienez 8,00 m-ko aurrealdea eta sartzeko 3,50 m-ko altuera libre baldin badute.

c) Tarteko oinak edo solairuarteak: Pabiloiaren azaleraren heren bati $-1/3-$ dagokion gehienezko azalarekin egin ahal izango dira. Gune honetan, altuera libre 2,30 m-koa izango da goialdean eta 2,50 m-koa behealdean. Biltegiatzeko alboko galeriak prestatzen badira, hauek nabe nagusirantz irekita egon beharko dira eta gehienez 2,50 m-ko zabalera izango dute; solairuarteetarako adierazitako altuera libreak bete beharko dituzte.

d) Eraikinaren estalkiak gehienez %35eko malda izango du estalki makurren kasuan; estalki lauzko konponbideak ere onartuko dira.

e) Ibilgailuen sarbide nagusiak gutxienez 3,00 m-ko zabalera eta 3,50 m-ko altuera izango ditu.

f) Ez da onartuko irtengune edo hegalkinik, ez irekirik ez itxirik, hegala apaingarriak edo sarbideak babestekoak izan ezik.

g) Fatxada eta estalkiaren irtengune gisa soil-soilik baimentzen dira tximiniak, antenak eta garatuko den industria jardueraren berezko instalazio osagarriak.

h) Errotuluak, iragarki argidunak eta bestelako apaindura motiboak ez dira fatxadetatik 0,25 m. baino gehiago aterako, eta debekatuta egongo dira fatxadarekiko perpendikularrean kokatutako kartel eta gainerako publizitate motiboak. Onartuta dago estalki gainean kartelak jartzea, baina soilik eraikinaren elementu berezizat jotzen diren kasuan.

93. Artikulua. Erabilera baldintza orokorrak.

— Industria erabilerako partzelak eta 1. motako partzela eraikigarriak (12. area «Zelaeta»):

a) Partzelak, nagusiki, 2, 3 eta 4. mailetako industria erabileretara zuzenduko dira.

b) Udalak industria erabilera nagusiarekin bateragarriak diren erabilerak baimendu ahal izango ditu, ondoko zerrendan daudenak, beti ere eskakizun funtzionalak eta horietako bakoitzari aplikagarri zaion araudi espezifikoak betetzen direnean.

Hotelak (hirugarren sektoreko erabileretarako isolatutako eraikinean). Merkataritza erabilera. Ostalaritza jarduerak (taberna, jatetxeak eta antzerakoak), baita Udalaren iritziz arautu behar

c) El número máximo de plantas altas será de dos (2). Se admitirá la construcción de altillos o entresijos con las características que se especificarán en el interior de cada planta; esta superficie no será computable, integrándose de forma adecuada a la planta a la que pertenece. Se autoriza en las condiciones de uso previstas en estas ordenanzas, la construcción de una planta de sótano, cuya altura libre no será inferior a 2,50 m. ni mayor que 3,50 m.

Parcelas edificables de tipo 2 (Area 12 «Zelaeta»): Se permiten exclusivamente edificaciones cubiertas pero abiertas tipo marquesinas.

3. Condiciones geométricas de los elementos integrantes de la edificación:

a) Altura libre mínima: Será de 2,50 m en las plantas sótano; 3,50 m en las plantas altas dedicadas a la producción y de 2,50 m en las zonas destinadas a oficinas, aseos, almacenamiento y otros usos complementarios de la empresa.

b) En el caso de existir semisótanos, éstos cumplimentarán las condiciones establecidas para las plantas bajas en cuanto a dimensiones y alturas libres mínimas, admitiéndose como locales independientes siempre que dispongan de un frente mínimo de 8,00 m y una altura libre de acceso de 3,50 m.

c) Entresijos o altillos: Podrán realizarse con una superficie máxima equivalente a la tercera parte $-1/3-$ de la superficie del pabellón. En esta zona, la altura libre será de 2,30 m en la parte superior y de 2,50 m en la parte inferior. En el caso de habilitarse galerías laterales de almacenamiento, éstas deberán estar abiertas hacia la nave principal y no tendrán un ancho superior a los 2,50 m, debiendo cumplir las alturas libres indicadas para los altillos.

d) La cubierta de los edificios tendrá una pendiente máxima del 35% en el caso de cubiertas inclinadas; admitiéndose soluciones de cubierta plana.

e) El acceso principal de vehículos tendrá unas dimensiones mínimas de 3,00 m de ancho y una altura mínima de 3,50 m.

f) No se admitirá la construcción de cuerpos salientes o volados, tanto abiertos como cerrados, a excepción de aleros decorativos o de protección de accesos.

g) Únicamente se permiten como elementos salientes de la fachada y cubierta las chimeneas, antenas y demás instalaciones complementarias propias de la actividad industrial a desarrollar.

h) Los rótulos, anuncios luminosos y otros motivos ornamentales no sobresaldrán de las fachadas más de 0,25 m; prohibiéndose los letreros y demás motivos publicitarios colocados perpendicularmente a ella. Se admite la instalación de letreros sobre cubierta únicamente en el caso de ser tratados como elementos singulares de la edificación.

Artículo 93. Condiciones generales de uso.

— Parcelas de uso industrial y parcelas edificables de tipo 1 (Area 12 «Zelaeta»):

a) Las parcelas se destinarán, de forma predominante, al uso industrial en sus categorías 2.^a, 3.^a y 4.^a

b) El Ayuntamiento podrá autorizar aquellos usos compatibles con el destino industrial predominante, incluidos en el listado siguiente, siempre que se dé cumplimiento a las exigencias funcionales y a la normativa específica aplicable a cada uno de ellos.

Hotelero (en edificio aislado para usos terciarios). Comercio. Las actividades de hostelería (bares, restaurantes y similares), así como otras que el Ayuntamiento pueda estimar

diren beste batzuk ere, ohiko saltokien ordutegi eta egutegi mugatuaren barruan burutuko dira. Bulegoak. Erkidego ekipamendua ondoko modalitateetan: Kirol erabilera, administratibo/zerbitzu publikoarena eta osasun/laguntzarena. Aparkalekua eta garajea. Zerbitzu azpiegiturak. Abeltzaintza intentsiboa.

c) Etxebizitza erabilera industria lurzoruan zerbitzu osagarri gisa onartuko da (zaintza eta kontserbazioaz arduratzen diren langileen etxebizitza gisa), ondoko baldintzekin:

— Etxebizitza lotzen zaion industria jarduera zehatzari esleitutako gutxieneko partzela garbia: 4.000 m².

— Partzela bakoitzeko etxebizitza bakarra, gehienez 110 m²-ko eraikitako azalerarekin.

— Etxebizitzak zerbitzutatuko industria partzelarekin erregistro unitate bat osatuko du.

d) Eraiki ezin daitezkeen erabilera pribatuko partzelaren azalera ibilgailuen maniobra eta aparkalekuetara, barne bideetara, aire zabaleko biltegiatara, instalazio elementuetara eta lorategietara zuzenduko dira, baina aurretik dagokion udal lizentzia lortu beharko da. Edozein kasutan, espazio hauek eta eraikinek apaindura eta osasungarritasun baldintza egokiak eduki beharko dituzte.

e) Industria eraikinen sotoak, soil-soilik, landutako material eta produktuak biltegiatzeko erabiliko dira eta beheko oineko edo erdisotokoekin lotuta egon beharko dira; debekatuta egongo da horietan pertsonen egonaldi luzea dakarren jarduera oro.

Garaje erabileraren kasuan, lokal hauek beheko oinekoe-kiko independenteak izan ahalko dira, baina edozein kasutan erabilera honi aplikagarriak zaizkion baldintzak bete beharko dituzte.

f) Erdisotoek beheko oinetarako onartutako jarduerak garatu ahal izango dituzte eta lokal independente gisa eratu ahal izango dira, beti ere 092. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

g) Baimendutako tarteko oinak edo solairuarteak bulego, komun, biltegiatze eta jarduera nagusiaren bestelako erabilera osagarrietara zuzenduko dira; ez da onartuko ekoizpenerako erabiltzea.

h) Existitzen diren lokalak beren egungo egoeran finkatuko dira, nahiz eta aurreko zehaztapenak ez bete. Ordezkatzen badira, aldiz, edozein kasutan bete beharko dituzte.

— 2. motako partzela eraikigarriak (12. area «Zelaeta»):

Partzelek aparkaleku edota biltegi erabilera izango dute.

94. Artikulua. Funtzionaltasun, higie, segurtasun, eraikuntza kalitate eta tratamendu estetikoaren baldintza orokorrak.

Plan Orokor honen arabera garatzen diren industria eraikuntza eta instalazioek indarrean dagoen Araudi Orokorrak eskatutako funtzionaltasun, higie, segurtasun eta eraikuntza kalitatearen baldintzak eta aplikagarriak diren erakunde eskudunen xedapenak bete beharko dituzte.

1. Aparkalekuak eta garajeak:

Beti ere plangintza xehatuak ezarritako antolamenduaren baldintzek eraikin berrietan baimentzen dutenean; eta existitzen diren eraikinetan jarduera berriak ezartzen direnean, hori gauzatzeko aukera objektiboen arabera, gutxienez 100 m²(t) bakoitzeko aparkaleku eta garaje plaza bat edukitzea eskatuko da.

oportuno regular, se ejercerán dentro del horario y calendario restringido del comercio convencional. Oficinas. Equipamiento comunitario en su modalidad de uso deportivo, administrativo/servicio público y sanitario/asistencial. Aparcamiento y garaje. Infraestructuras de servicio. Ganadería intensiva.

c) El uso de vivienda se tolerará en suelo industrial en calidad de servicio auxiliar (vivienda destinada al personal encargado de la vigilancia y conservación) bajo las siguientes condiciones:

— Parcela neta mínima asignada a la actividad industrial concreta a la que se liga la vivienda: 4.000 m².

— Una sólo vivienda por parcela, con una superficie construida no mayor de 110 m².

— La vivienda constituirá una unidad registral con la parcela industrial servida.

d) Las superficies de parcela no edificables de uso privado se destinarán a maniobra y aparcamiento de vehículos, viales interiores, almacenaje al aire libre, elementos de instalaciones o zonas ajardinadas, previa obtención de la correspondiente licencia municipal. En cualquier caso tanto estos espacios como las propias edificaciones deberán adecuarse en adecuadas condiciones de ornato y salubridad.

e) Los sótanos de las edificaciones industriales se destinarán, exclusivamente, a almacenamiento de materiales y productos elaborados, debiendo estar ligados a los de planta baja o semisótano, prohibiéndose en ellos toda actividad que exija la estancia prolongada de personas.

En el caso de uso de garaje, estos locales podrán ser independientes de los de planta baja, cumpliendo en cualquier caso los condicionados aplicables a este uso.

f) Los semisótanos podrán desarrollar las actividades admitidas para las plantas bajas y constituirse como locales independientes, siempre que cumplan las condiciones del 092.

g) Los entresijos o altillos autorizados se destinarán a oficinas, aseos, almacenamiento y otros usos complementarios de la actividad principal; no admitiéndose su uso para la producción.

h) Los locales existentes quedarán consolidados en su actual estado, aún no cumpliendo con las determinaciones anteriores. En caso de sustitución deberán en cualquier caso cumplimentarlas.

— Parcelas edificables de tipo 2 (Area 12 «Zelaeta»):

Las parcelas se destinarán al uso de aparcamiento y/o almacenamiento.

Artículo 94. Condiciones generales de funcionalidad, higie, seguridad, calidad constructiva y tratamiento estético.

Las construcciones e instalaciones industriales que se desarrollen al amparo del presente Plan General, deberán cumplir las condiciones de funcionalidad, higie, seguridad y calidad constructiva, exigidas por la normativa general vigente y las disposiciones de los organismos competentes aplicables.

1. Dotación de aparcamientos y garajes:

Siempre que las condiciones de ordenación establecidas por el planeamiento pormenorizado lo permitan en las nuevas construcciones; y en los casos de nueva implantación de actividades en edificios existentes, en función de las posibilidades objetivas de materialización de la misma, se exigirá la disposición de una dotación mínima de aparcamiento o garaje de 1 plaza/100 m²(t).

Soto, erdisoto edo estalitako sestra oinetan egiten diren garajeek bizitoki erabilerako partzeletarako ezarritako funtzionaltasun orokorraren baldintzak bete beharko dituzte.

2. Isurketa eta arazketarako baldintzak:

Hondakin uren toleratu gabeko kutsadura sorrarazten duten industria jarduerak beren arazketa sistema propioa ezarri beharko dute. Sare orokorrera isuri aurretik, lagin kutxeta bat eduki beharko da, dagozkion azterketak burutzeko xedearekin.

3. Argiztapen eta aireztapenerako oinarritzko baldintzak:

a) Nabeen argiztapena gutxienez, guztira, azalera erabilgarriaren %10eko azalera duten baoen bitartez lortuko da. Azalera horretara iristen ez den justifikatutako kasuan, gainera, aurreikusitako jarduera garatzeko behar adinako argiztapen artifiziala edukiko da eta hau, gutxienez, 20 lux-ekoa izango da biltegiatze guneetan eta igarobideetan; 50 lux-ekoa, ekoizpen edo manipulazio guneetan eta 300 lux-ekoa bulegoetan.

b) Aireztapena behar adinakoa izango da, orduko eta lanegile bakoitzeko 40 m³-tik gorako aire fresko eta garbiaren hornidura bermatzeko.

c) Argiztapen eta aireztapen sistema osagarriak gai horretan aditua den teknikari eskudun batek idatzitako proiektu zehaztua izan beharko du; sistema horiek lokala ireki aurretik eta edozein unetan berrikusiko dira.

d) Sotoko aparkalekuen lokalek zuzeneko aireztapen naturala edo hodi bidezkoa izango dute. Aireztapena naturala bada, lokalak kanpoaldera ematen duten baoak eduki beharko ditu; aireztapena eragindakoa bada, azalaren metro karratu bakoitzeko orduko 15 m³-ko aire berriztapena sortzeko adina izan beharko da.

4. Higiene zerbitzuen zuzkidura:

a) Pabiloiek bertako langileentzako «Laneko segurtasuna eta higiena» eta osasunari buruzko arauak ezartzen dituzten higiena zerbitzuak izango dituzte eta, hamar langile baino gehiago dituzten enpresentzat, gutxienez, ondokoak:

— Pertsona bakoitzeko bi metro karratuko aldagelak eta komunak, sexu bereizketarekin.

— Lanegun berean zehar lan egiten duten hamar pertsonako konketa bat.

— Komun bat lanegun berean zehar lan egiten duten hogeita bost gizonentzat eta beste bat hamabost emakumerentzat.

b) Hamar langile baino gutxiagoko enpresetan, gutxienez, komun eta konketa bat.

c) Multzo bat osatzen duten hainbat lokalen osasun zerbitzuak bildu ahal izango dira.

d) Komunen aireztapen eta argiztapen sistema Ordenantza hauetan etxebizitzaren bainugela eta komunitarako aurreikusitakoren bat izango da.

5. Tratamendu estetikoaren baldintzak:

a) Industria partzela guztiak itxitura bat izango dute beren perimetroak eta honek Ordenantza hauetan eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu, tokiko bideetara ematen duen aurrealdean izan ezik.

b) Udalak aire zabalean elementu teknikoak eta biltegiatzeari dagozkionak instalatzeak ingurumen edo paisaia ekar dezakeen eragin negatiboa arintzera zuzentzen diren neurriak hartzea eskatu ahal izango du.

c) Bai eraikinak baita eraikuntza espazio libreak ere apaindura eta osasungarritasun baldintza egokietan mantendu beharko dira.

Los garajes que se habiliten en sótanos, semisótanos o plantas rasantes cubiertas, deberán cumplir los requisitos de funcionalidad general establecidos para las parcelas de uso residencial.

2. Condiciones de vertido y depuración:

Las actividades industriales que produzcan una contaminación no tolerada de las aguas residuales, deberán establecer su propio sistema de depuración. Previo al vertido a la red general se dispondrá de una arqueta de muestra con el fin de poder realizarse los correspondientes análisis.

3. Condiciones generales de iluminación y ventilación:

a) La iluminación de las naves se realizará mediante huecos de una superficie total superior al 10% de la superficie útil. En el supuesto justificado de no llegar a dicha superficie, se dispondrá además, iluminación artificial suficiente para desarrollar la actividad prevista y que será, al menos, de 20 lux en las zonas de almacenamiento y paso; de 50 lux en las de producción o manipulación y de 300 lux en las oficinas.

b) La ventilación será la suficiente de forma que se garantice el suministro de aire fresco y limpio de más de 40 m³ por hora y trabajador.

c) El sistema de iluminación y ventilación auxiliar, deberá ser objeto de un proyecto detallado redactado por facultativo competente, quedando tales sistemas sometidos a revisión antes de la apertura del local y en cualquier momento.

d) Los locales de aparcamiento en sótano dispondrán de ventilación natural directa o por conducto. Si la ventilación es natural, el local deberá contar con huecos al exterior; cuando la ventilación sea forzada deberá ser apta para producir una renovación de aire de 15 m³/hora por metro cuadrado de superficie.

4. Dotación de servicios higiénicos:

a) Los pabellones dispondrán para su personal los servicios de higiene que establecen las Normas sobre «Seguridad e higiene en el trabajo» y Sanidad, y, como mínimo, para empresas de más de diez trabajadores, de los siguientes:

— Dos metros cuadrados de vestuario y sanitarios por persona, con separación de sexos.

— Un lavabo por cada diez personas que trabajen durante la misma jornada.

— Un inodoro por cada veinticinco hombres y otro por cada quince mujeres que trabajen durante la misma jornada.

b) Para empresas con menos de diez trabajadores se exigirán, como mínimo, un inodoro y un lavabo.

c) Los servicios sanitarios de varios locales que formen un conjunto, podrán agruparse.

d) El sistema de ventilación e iluminación de los aseos será alguno de los previstos para los baños y retretes de las viviendas en las presentes Ordenanzas.

5. Condiciones de tratamiento estético:

a) Todas las parcelas industriales dispondrán de un cierre en su perímetro, que deberá cumplimentar las condiciones exigidas en estas Ordenanzas, salvo en el frente al viario local.

b) El Ayuntamiento podrá exigir la adopción de medidas que tiendan a atemperar el desfavorable impacto que en el orden ambiental o paisajístico, pueda conllevar la instalación de elementos técnicos y de almacenaje al aire libre.

c) Tanto las edificaciones como los espacios libres de edificación deberán conservarse en adecuadas condiciones de ornato y salubridad.

5.5. HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERA DUTEN PARTZELETARAKO ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ARAUTZEN DUTEN ORDENANTZAK

95. Artikulua. Eraikuntzaren baldintza orokorrak.

1. Hiri lurzoruen eremuetan dauden hirugarren sektoreko erabilera duten partzelak, non Plan orokorrean ezarritako aurreikuspenak zuzenean finkatzea edo gauzatzea proposatzen den, kasu bakoitzean Hirigintza Fitxek ezarritako eraikuntza baldintzetara egokituko dira.

2. Halaber, nagusiki mota honetako erabileretara lotutako partzelak zehaztu ahal izango dira, plangintza partzialak zehaztu beharko dituen nagusiki egoitza edo industria erabilera ematen dieten sektoreetan garatuko diren zuzkiduren zati gisa. Plangintza horrek ezarriko ditu, kasu honetan, oinarritzko eraikuntza baldintzak.

96. Artikulua. Erabilera baldintza orokorrak

1. Arau hauek proposatutako hirugarren sektoreko erabilera duten partzelak dagozkion Hirigintza Fitxetan horietako bakoitzarentzat hartutako erabilera espezifikotara zuzenduko dira.

2. Kalifikazio orokorra besterik jaso ez dutenek nagusiki ondoko erabilerak izango dituzte: Hotel, merkataritza eta bulego erabilerak.

Udalak hirugarren sektoreko erabilera nagusiarekin bateragarriak diren erabilerak baimendu ahal izango ditu, ondoko zerrendan daudenak, beti ere eskakizun funtzionalak eta horietako bakoitzari aplikagarri zaion araudi espezifikoa betetzen direnean:

— Aisia erabilera.

— 1. mailako industria erabilera (2. mailako jarduerak, gehienez, eraikitako 200 m²-ko azalera arte).

— Erkidego ekipamendua bere maila guztietan, eskola, hilerri eta erlijio ekipamenduak izan ezik.

— Garaje eta aparkamendu erabilera.

Gainerako erabilera posibleak debekatuta daudela ulertuko da.

97. Bizigarritasun, eraikuntza kalitate, segurtasun, tratamendu estetiko eta jabariaren baldintza orokorrak.

Indarrean dagoen Araudi Orokorrak gain, ezartzen diren erabilera espezifikoen arabera, aplikagarriak izango dira era osagarrian, erabilera horietarako nagusiki egoitza eta industria erabileretara zuzendutako partzeletako lokaletan ezarritako baldintzak, non horiek ezartzea ere baimenduko den.

5.6. EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO SISTEMEN ETA ZERBITZUEN AZPIEGITUREN PARTZELETARAKO ERAIKUNTZA ETA ERABILERAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZAK

98. Artikulua. Eraikuntza baldintza orokorrak.

Plan Orokorraren antolamenduaren aurreikuspenak zuzenean finkatzea edo gauzatzea baimentzen den hiri lurzoruen eremuetan, lerrokadurak eta eraikuntza tipologia, eraikuntzaren euspen mailak urbanizatutako lurreen eta erkidego ekipamenduaren eta zerbitzuen azpiegituren sistemaren partzelen bolumen eta probetxamendu baldintzak dagozkien Hirigintza Fitxetan ezarritakora egokituko dira.

5.5. ORDENANZAS REGULADORES DE EDIFICACIÓN Y USO PARA PARCELAS DE USO TERCIARIO

Artículo 95. Condiciones generales de la edificación.

1. Las parcelas de usos terciarios comprendidas en áreas de suelo urbano en las que se propone la consolidación o la ejecución directa de las previsiones ordenadas del Plan General se ajustarán a las condiciones de edificación establecidas en cada caso por las Fichas Urbanísticas correspondientes de la Normativa Pormenorizada.

2. Así mismo, podrán definirse parcelas adscritas de forma predominante a este tipo de usos, como parte de las dotaciones que deberá definir el planeamiento parcial a desarrollar en los sectores a los que se asigna un uso residencial o industrial predominante. Será dicho planeamiento, en este caso, el que establezca sus condiciones básicas de edificación.

Artículo 96. Condiciones generales de uso

